

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa

Consortio de Residuos de Gipuzkoa

2020





AURKIBIDEA

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	9
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	9
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia	9
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	11
III.1 Kontularitzako alderdiak	11
III.2 Ondasunak eta zerbitzuak kontratatzea.....	12
IV. URTEKO KONTUAK	13
IV.1 Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren kontuak	13
IV.2 Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUren kontuak	15
IV.3 Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren eta mendeko sozietateen kontu bateratuak	16
ERANSKINAK	17
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera eta ezargarria zaion araudia.....	17
A.2 Aurrekontua eta urteko kontuak	19
A.3 Ibilgetua eta emakidagatiko pasiboa.....	20
A.4 Ibilgetu finantzarioa eta ondare garbiaren kontuak.....	21
A.5 Eragiketa finantzarioak	22
A.6 Zerbitzua emateagatiko diru-sarrerak, hornidurak eta ustiapeneko beste gastu batzuk	24
A.7 Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren kudeaketa arrunteko beste sarrera batzuk	27
A.8 Pertsonaleko gastuak.....	28
A.9 Aurrekontu- eta ondare-emaitzaren arteko berdinketa	28
A.10 Kontratazioaren analisia	29



ÍNDICE

ABREVIATURAS	31
I. INTRODUCCIÓN	33
II. OPINIÓN.....	35
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	35
II.2 Opinión sobre las Cuentas anuales	35
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	37
III.1 Aspectos contables.....	37
III.2 Contratación de bienes y servicios	38
IV. CUENTAS ANUALES.....	39
IV.1 Cuentas del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa	39
IV.2 Cuentas de Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SAU.....	41
IV.3 Cuentas consolidadas del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa y sociedades dependientes	42
ANEXOS	43
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y normativa de aplicación	43
A.2 Presupuesto y Cuentas anuales.....	45
A.3 Inmovilizado y pasivo por concesión	46
A.4 Inmovilizado financiero y cuentas de patrimonio neto.....	47
A.5 Operaciones de financiación	48
A.6 Ingresos por prestación de servicios, aprovisionamientos y otros gastos de explotación	51
A.7 Otros ingresos de gestión ordinaria del CRG	54
A.8 Gastos de personal	54
A.9 Conciliación resultado presupuestario y patrimonial.....	54
A.10 Análisis de contratación.....	55



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
GAO	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia.
GHHKPO	Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra.
GHK	Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAU.
GHKZ	Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Zentroa.
GIG	Gipuzkoako Ingurumen Gunea.
GLH	Gipuzkoako Lurralde Historikoa.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
Kontsortzioa	Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa.
PI	Prozedura irekia.
PIH	Prozedura Ireki Harmonizatua.
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta 2021erako Lanerako Programan erabakitakoari jarraikiz, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren 2020ko ekitaldiaren Kontu Orokorraren fiskalizazioa mamitu du. Aurreko fiskalizazio-lana 2017ko ekitaldikoa da.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezkoak: honako atal hauetan: aurrekontua, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, hornidura eta zerbitzuak eta zuzenbide publikoko sarrerei buruzko arautegia.
- Kontularitzakoak: Kontsortzioaren, GHK sozietate publikoaren eta Kontsortzioaren eta mendeko sozietateen urteko kontu bateratuak ezargarriak zaizkien kontabilitateko printzipioen arabera bete diren aztertzen da. Halaber, banakako kontuen eta kontu bateratuen gaineko kanpoko auditoretzako txostenak egin dira.
- Lanean ez da jaso gastuaren eraginkortasunari eta efizientziari buruzko analisia. Hala ere, aurkitu diren hutsak «Barne kontroleko sistemei eta kudeaketa prozedurei buruzko gogoetak» epigrafean azaldu dira xehetasunez.

Kontsortzioa 2007ko maiatzaren 24an eratu zen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko mankomunitateek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, nork bere eskumenekin, hondakinak tratatzeko azpiegiturak kudeatu eta onera ekartzen ahaleginak batzeko erreminta modura; Kontsortzioaren helburu nagusia hiri hondakinen bideraketa-sarea kudeatzea da.

2008ko otsailaren 14an Kontsortzioaren Batzar Nagusiak onartu zuen GHK eratzea bere eskumenerako zerbitzua zuzenean kudeatzeko; honela, bada, 2009ko abenduaren 22ko Batzar Nagusiak jaso zuen GHK berezko baliabide eta zerbitzu tekniko dela. 2016ko ekitaldian Kontsortzioaren Batzar Nagusiak onartu zuen aldaketak egitea Kontsortzioaren eta GHKren estatutuetan eta bi erakundeen arteko Esparru Akordioan, zerbitzuen kudeaketa zuzena edo zeharkakoa jasotzeko. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta kudeaketa-eredua aldatu izanaren ondorioz, Kontsortzioak fakturatzen dizkie mankomunitateei errefusen bideraketa-sareko kudeaketa-tarifa eta bio-hondakinaren bideraketa-sareko kudeaketa-tarifa. GHKri agindu zaio kudeaketa-lana eta Kontsortzioari fakturatzen dizkio egindako kostu guztiak.

2019ko maiatzaren 30ean, bitarteko propio pertsonifikatuen araubide juridiko berrira egokitzeko, Esparru-Akordio bat sinatu zen, zeinetan zehazten baita Kontsortzioak GHKri mandatuak emateko moldea, aldean eskubideak eta betebeharrak eta Kontsortzioak GHKri egingo dizkion mandatuak, eta hura indargabetzea gomendatzen duten interes publikoko inguruabarrak gertatzen ez diren bitartean indarrean egongo dela ezartzen da. 2019ko abenduaren 16an, 2020rako mandatuak eguneratu ziren; hona hemen zein diren:

- Bio-hondakinen zatikiaren tratamendua, eta, zehazki, Epeleko konpostatze plantaren ustiapena eta bio-hondakinen tratamendua kanpoaldean.
- Gipuzkoako Ingurumen Gunea martxan jarri aurretik, errefus-hondakinak tratatzea.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Hiri-hondakinen errefusa eta bio-hondakina transferentzia-estazioetatik edo zehaztutako beste entrega-gune batzuetatik tratamendu-zentroetara garraiatzea, bai eta Gipuzkoako hiri-hondakinak transferitzeko estazioen kudeaketa egitea ere.
- Inausketak birrintzea, garraiatzea eta tratatzea.
- Aholkularitza juridikoa, ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa.
- Kontsortzioak onartutako tarifa eta diru-sarrerak kobratzea, bai eta GHK-k Kontsortzioaren izenean eta kontura egin beharreko ordainketak ere.

Honenbestez, Kontsortzioak 2020an guztira 90 udalerriri eman die zerbitzu, 2020ko urtarrilaren 1ean 744.121 biztanle besarkatzen zituztenak; hona hemen Kontsortziora bildutako erakundeak zein diren:

	Udalerrri mankom. kopurua	(*) Biztanleria 2020ko urt. 1	(***) Ordezkar. ehunekoa
Gipuzkoako Foru Aldundia	-	-	% 33
San Marko Udal Mankomunitatea	10	318.646	% 29
Txingudiko Mankomunitatea	2	79.771	% 7
Debarreneko Eskualdeko Mankomunitatea	(**) 8	73.027	% 7
Sasietako Mankomunitatea	22	70.225	% 6
Debagoieneko Mankomunitatea.....	8	62.888	% 6
Tolosaldeko Mankomunitatea.....	28	62.634	% 5
Urola-Kostako Mankomunitatea	5	44.397	% 4
Urola-Erdiko Mankomunitatea.....	7	32.533	% 3
GUZTIRA	90	744.121	% 100

(*) Estatistika Institutu Nazionalaren datuak.

(**) Bizkaiko Lurralde Historikokoak diren bi udalerrri (Ermua eta Mallabia).

(***) Mankomunitate bakoitzak duen ordezkaritza ehunekoa biztanle kopuruaren arabera kalkulatua, Kontsortzioko estatutuen 11. artikuluari jarraikiz.

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen ustetan, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUk zuzentasunez bete dute 2020ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Kontsortzioa

1. Kontsortzioa GHK-ko akziodun bakarra da eta partaidetza horren balioa Balantzean 2020ko abenduaren 31n 53,6 milioi euro da; ordea, GHKren Balantzeak 2020ko abenduaren 31n erakusten duen ondare garbia 13,6 milioi euro da. Urteko Kontuen Memoriak jakinarazten du Kontsortzioak ebaluatu duela GHKn egindako inbertsioaren berreskuragarritasuna, eta uste du enpresa horren etorkizuneko kutxa-fluxuak aski izango direla inbertsioa berreskuratzeko, eta, beraz, ez dua beharrezkotzat jotzen kontabilitate-balio horri inolako zuzenketarik egitea. Hala ere, ez dira egiaztatu Memorian jasotako baieztapena euskarritzen duten suposizioak, eta, beraz, ezin dugu ondorioztatu GHKn 53,6 milioi euroren partaidetzaren balioespena arrazoizkoa denik.

GHK

2. Eskuratutako informazioak ez digu bide ematen ondorioztatzeko ea GHKren Ibilgetu ukiezinaren balio berreskuragarria (aurreikusitako kutxako fluxuen arabera, eskatutako tasarekin gaurkotuak) aipatutako aktiboaren kontularitzako balio garbia baino handiagoa den 61 milioi euroan, 2017ko abenduaren 31n narriadura erregistratu behar den edo ez jakiteko. Kontsortzioari eragindako sozietatearen sarrerei dagokienez hartzen diren erabakien bilakaeraren baitakoak izango dira etorkizuneko kutxako fluxuak.

GHK ETA KONTU BATERATUAK

3. GHK-k deribatu finantzarioak euren balio zuzenarekin balioztatu ditu eta doitu egin du bertan esku hartzen duten aldean kreditu egoeratik arriskutik libre dagoen deribatuaren balioa. Irizpide horren arabera, 2020ko abenduaren 31n deribatuen balioetsitako balioa pasiboko idazpuruetan ez-estaldurako modura erregistratu da guztira 43,8 milioi euroren zenbatekoan (6,7 milioi euro epe laburrera eta 37,1 milioi euro epe luzera). Kreditu-arrisku hori kontuan hartzeak pasiboaren balioa txikiagoa izatea eragin du, 9,1 milioi euroan, finantza-erakundearen arabera 2020ko abenduaren 31n egindako balorazioekin alderatuta, 52,9 milioi euroena baitzen; likidaziorik egin behar izanez gero, zenbateko hori izango litzateke zegokioketena. Egoera honetan ezin ondoriozta dezakegu deribatuengatik erregistratutako pasiboaren zuzentasuna, ez



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2020ko abenduaren 31n Egoeraren Balantzean duen sailkapena, ez eta 20120ko ekitaldiaren Galera eta irabazien kontuan eragin litzakeen ondorioak ere.

Epaitegi honen iritzira, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUren Kontu orokorrek eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren eta mendeko sozietateen urteko kontu bateratuek alderdi esanguratsu guztietan 2020ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, arauan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

Gure iritzian eraginik izan gabe, GHKren Memorian jaso den informazioa azpimarratu nahi dugu: kontuak funtzionamenduan dagoen enpresa-printzipioaren arabera formulatu dira; sozietatearen maniobra-funtsaren egoera 2020ko abenduaren 31n, 5,2 milioi euroan negatiboa izan da; eta GHKren aurreko ekitaldietako emaitza negatiboen ondorioz ondare garbia murriztu da, nagusiki deribatuen ondorioz finantza-gastuek eraginda. GHKren Memoriak, halaber, Kontsortzioak 2019an sinatutako Esparru Akordioan GHKri dagokionez bere gain hartutako betebeharren berri ematen du. Akordio horrek nahikotasun ekonomikoari eta finantzarioari buruzko klausula bat jasotzen du. Horren bidez, Kontsortzioak bere gain hartzen ditu enkarguak gauzatzean sortutako GHKren kostuak, eta aurreko Esparru Akordioaren baitan GHK-k hirugarrenekin dituen konpromiso guztiak betetzeko betebeharra bermatzen eta onartzen du, eta egin beharreko ordainketetan finantza-nahikotasuna ziurtatzen du.

Kontu bateratuei dagokionez, Memoriak jakinarazten du Taldeak bere betebeharrei aurre egiterik izango ez balu, neurri egokiak hartuko liratekeela (tarifa berriak onartzea barne, mugarik gabe) Taldearen ondare-egoera finantzarioa berrezartzeko eta estaldura ekonomiko nahikoa bermatzeko, finantzaketa-kontratuen, zerbitzuen kostuen eta gerta litekeen beste zeinahi eragin ekonomikoren pean zorraren zerbitzua ziurtatuko duena.



III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

III.1 KONTULARITZAKO ALDERDIAK

- Batzar Nagusiak onartutako eta GAOn argitaratutako Kontsortzioaren aurrekontua 43,5 milioi eurorena da; Kontu Orokorrean jasotako aurrekontu-likidazioak, berriz, diru-sarreraren 45,2 milioi euroren hasierako aurrekontua du, eta gastuen 44,2 milioi eurorena (ikus A.2). Batzar Nagusiak onartutako hasierako aurrekontua da aurrekontu-likidazioan jaso behar dena, eta aurrekontua aldatzeko dagozkion espedienteak izapidetu behar dira.
- 2020ko ekitaldian, Kontsortzioak 350.000 euroren aurrekontu-aldaketa onartu zuen, mankomunitateei konpentsazioak ordaintzeko, eta diruzaintzako geldikinekin finantzatu zen. Diru-sarreraren aurrekontua ez da aldatu, eta doitutako aurrekontu-emaitzaren kalkuluan ez da sartzen diruzaintzako geldikinarekin finantzatutako gastuengatik ondoriozko ez gastua, ez ekitaldiko emaitzara egindako doikuntza. Aurrekontu-emaitza doitia zuzena bada ere, diruzaintzako geldikinarekin gauzatutako gastuak eta gastu horien finantzaketa erakutsi behar dira.
- Kontsortzioaren ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontuak 12,1 milioi euroren hornikuntza-gastuak eta 15,5 milioi euroren beste kudeaketa-gastu batzuk jasotzen ditu, eta Memoriak ez du horien edukiari buruzko informaziorik ematen. Gure ustez, epigrafe horien edukiaren berri eman beharko litzateke GHKri egindako enkarguen bilakaera eta emakidadunei egindako ordainketak islatzeko, behin Gipuzkoako Ingurumen Gunea 1 eta Gipuzkoako Ingurumen Gunea 2 martxan jartzen direnean. Era berean, kontu bateratuen memoriak hornikuntza-kontuaren edukiaren berri eman beharko luke.
- Kontsortzioak epe laburreko 9,4 milioi euroren hornidura bat eman du GIG1eko eragiketarako hasi aurreko gastuengatik, 2019ko eta 2020ko ekitaldiei dagozkienak, eta gaur egun likidatu gabe dago (ikus A.6).
- GHK-k 7,8 milioi euro erregistratu ditu negozio zifren ustiapeneko diru-sarrera gisa, oreka ekonomikoari eta finantzarioari eusteko Kontsortzioak emandako finantzaketagatik. Diru-sarrera horiek finantza-emaitzaren atalean erregistratu beharko lirateke, eta ez ustiapen-atalean, transferentzia horren xedearan arabera.



III.2 ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK KONTRATATZEA

Kontratazio espedienteak aztertuta (ikus A.10), honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- SPKLLk kontratua justifikatzeko memoria bat egitea eskatzen du, eta, horrez gain, besteak beste, kaudimen tekniko edo profesionaleko, ekonomikoko eta finantzarioko irizpideak, kontratua esleitzeko kontuan hartuko diren irizpideak eta prezio-irizpidea baloratzeko erabilitako formulak justifikatzea eskatzen du. Aztertu diren espedienteetan ez dago halako justifikazio-agiririk eta honenbestez, komenigarria litzateke aurreikuspen horiek jasoko dituen agiri edo memoria bat mamitzea eta kontratatzailearen profilean argitara ematea.
- Lau espedientetan ez dira kontratatzailean profilean argitaratu kontratazio-mahaiaren aktak (2tik 5erako espedienteak).
- Espediente batean (1 zk. espediente) Segurtasun eta Osasun Plana ez du kontratazioko organoak onartzen.



IV. URTEKO KONTUAK

IV.1 GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAREN KONTUAK

A. 2020ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa Euroak milakotan

DIRU-SARRERAK	Eransk.	Aurrekontua			Eskubide aitortuak	Gauzat. kobran.	Ordaindu gabea
		Hasierak.	Aldatua	Behin-bet.			
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A6	39.191	-	39.191	30.543	25.731	4.812
4.- Transferentzia korronteak	A7	6.000	-	6.000	6.000	6.000	-
SARRERAK, GUZTIRA		45.191	-	45.191	36.543	31.731	4.812

GASTUAK	Eransk.	Aurrekontua			Obligazio aitortuak	Gauzat. ordaink.	Ordaindu gabea
		Hasierak.	Aldatua	Behin-bet.			
2.- Ondasun korronte eta zerbit. kontr....	A6	36.472	350	36.822	21.405	18.755	2.650
4 Transf. eta dirul. korron.	A6	7.773	-	7.773	7.758	6.726	1.032
GASTUAK, GUZTIRA		44.245	350	44.595	29.163	25.481	3.682

B. Aurreko ekitaldietako sarrera eta gastuen hondarrak Euroak milakotan

	Hasierako zorra	Baliog.	(Kobr.)/ ordaink.	Azken zorra
Zordunak.....	5.140	-	(5.135)	5
Hartzekodunak.....	(2.598)	-	2.598	-
AURREKONTU ITXIAK				

C. Aurrekontuaren emaitza Euroak milakotan

Eskubide aitortuak	36.543
Obligazio aitortuak	(29.163)
Indarreko aurrekontuko eragiketen emaitza	7.380
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	7.380

D. Diruzaintza geldikina Euroak milakotan

Diruzaintzako funts likidoak	13.643
Aurrekontuko zordunak	4.817
Zordun ez aurrekontukoak	7
Aurrekontuko hartzekodunak	(3.682)
Hartzekodun ez aurrekontukoak.....	(13)
Diruzaintza geldikina	14.772



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

E. Balantzea 2020 eta 2019ko abenduaren 31n				Euroak milakotan			
AKTIBOA	Eranskina	2020	2019	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Eranskina	2020	2019
AKTIBO EZ KORRONTEA		325.044	316.731	ONDARE GARBIA		67.576	61.781
Ibilgetu materiala	A3	271.403	263.090	Ekarritako ondarea.....	A4	3.350	3.350
Finantza inbertsioak epe luzera	A4	53.641	53.641	Aurreko ekitaldien emaitza		3.969	(397)
				Ekitaldiko emaitza.....		5.795	4.366
				Erak.jabeen beste ekarpen batzuk.....	A4	54.462	54.462
				PASIBO EZ-KORRONTEA		254.309	249.156
				Epe luzeko emakidagatiko pasiboa ...	A3	254.309	249.156
AKTIBO KORRONTEA		21.651	11.885	PASIBO KORRONTEA		24.810	17.679
Zordunak eta kobr. bst. knt. b.		8.008	6.695	Epe laburreko hornidurak.....	A6	9.385	2.615
Diruzaintza		13.643	5.190	Epe labur. emakidagatiko pasiboa.....	A3	11.775	11.610
				Hartzek. eta ordain. bst kontu b.....		3.650	3.454
AKTIBOA, GUZTIRA		346.695	328.616	ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA		346.695	328.616

F. 2020ko eta 2019ko ekitaldietako Ondarearen Emaitza Ekonomikoaren Kontua				Euroak milakotan		
	Eranskina	2020	2019			
Zerbitzu ematea	A6	30.543	29.389			
Bestelako sarrerak	A6	3.180	-			
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....	A7	6.000	6.000			
Hornidurak	A6	(12.062)	(1.017)			
Bestelako kudeaketa gastuak	A6	(15.551)	(26.148)			
Ibilgetua amortizatzea.....	A3	(1.471)	(319)			
Beste emaitza batzuk		90	-			
KUDEAKETA KORRONTEAREN EMAITZA		10.729	7.905			
Gastu finantzarioak.....	A3	(4.934)	(3.539)			
FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZA		(4.934)	(3.539)			
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA		5.795	4.366			



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV.2 GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA SAU-REN KONTUAK

A. Egoeraren balantzeak 2020ko eta 2019ko abenduaren 31n Euroak milakotan

AKTIBOA	Eranskina	2020	2019	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Eranskina	2020	2019
AKTIBO EZ KORRONTEA		61.302	63.635	ONDARE GARBIA		13.640	17.662
Ibilgetu ukiezina.....	A3	61.302	63.635	Kapitalezkoak	A4	1.000	1.000
				Erreserbak	A4	72.307	72.307
				Aurreko ekit. emaitza negatiboak		(56.992)	(51.385)
				Ekitaldiko emaitza.....		(3.951)	(5.607)
				Dirulaguntzak, dohaintzak eta legat.....		1.276	1.347
AKTIBO KORRONTEA		13.103	14.426	PASIBO EZ-KORRONTEA		42.473	41.708
Merkat. zordunak eta kobr. bestel. knt.		2.762	3.353	Kreditu erakundeekiko zorrak	A5	5.400	5.881
Finantza inbertsioak epe laburrera		-	226	Zeharkakoak.....	A5	37.069	35.823
Diruzaintza.....		10.341	10.847	Gerorat. zergarengatiko pasiboak		4	4
				PASIBO KORRONTEA		18.292	18.691
				Epe laburreko zuzkidurak.....		1.527	369
				Kreditu erakundeekiko zorrak	A5	8.516	8.874
				Zeharkakoak.....	A5	6.751	6.289
				Beste finantza pasibo batzuk		370	254
				Hartzek. eta ordaint. bst knt b.		1.128	2.905
AKTIBOA, GUZTIRA		74.405	78.061	ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA		74.405	78.061

B. 2020ko eta 2019ko ekitaldietako galera-irabazien kontuak Euroak milakotan

	Eranskina	2020	2019
Negozio zifraren zenbateko garbia	A6	19.143	29.704
Hornidurak.....	A6	(7.663)	(15.619)
Pertsonaleko gastuak	A8	(865)	(831)
Ustiapeneko beste gastu batzuk	A6	(1.003)	(1.405)
Ibilgetua amortizatzea	A3	(2.784)	(2.723)
Ibilgetu ez finantzarioko dirulaguntzak egozte eta beste		70	55
Beste emaitza batzuk		238	-
Aparteko gastu eta sarrerak		(557)	-
USTIAPENAREN EMAITZA		6.579	9.181
Gastu finantzarioak	A5	(8.822)	(9.126)
Finantza baliabideetan arazoizko balioaren bariazioa	A5	(1.708)	(5.662)
EMAITZA FINANTZARIOA		(10.530)	(14.788)
EKITALDIAREN EMAITZA		(3.951)	(5.607)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV.3 GIPUZKOAKO HONDAKINEN KONTSORTZIOAREN ETA MENDEKO SOZIETATEEN KONTU BATERATUAK

A. Balantze Bateratua 2020 eta 2019ko abenduaren 31n				Euroak milakotan			
AKTIBOA	Eranskina	2020	2019	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Eranskina	2020	2019
AKTIBO EZ KORRONTEA	A3	337.137	329.770	ONDARE GARBIA		32.007	28.846
Lursailak eta eraikuntzak		48.292	44.755	Ekarrirako ondarea	A4	3.350	3.350
Beste ibilgetu material bat		21.367	24.432	Erreserbak	A4	19.666	19.665
Indarreko ibilgetua eta aurrerakinak ..		-	1.557	Aurreko ekit. emaitza negatiboak		(49.871)	(50.005)
Obren emakidako aktiboak		267.478	30.165	Ekitaldiko emaitza.....		3.222	134
Abian diren obren emakidako aktib...		-	228.861	Erak. jabeen bst.ekarpen b.....	A4	54.462	54.462
				Dirulaguntzak, dohaintzak eta legat.....		1.178	1.240
				PASIBO EZ-KORRONTEA		296.782	290.864
				Kreditu erakundeekiko zorrak	A5	5.400	5.881
				Zeharkakoak.....	A5	37.069	35.823
				Epe luzeko emakidagatiko pasiboa.....	A3	254.309	249.156
				Gerorat. zergarengatiko pasiboak		4	4
AKTIBO KORRONTEA		33.206	24.698	PASIBO KORRONTEA		41.554	34.758
Merkat. zordunak eta kobr. bestel. knt.		9.222	8.436	Epe laburreko zuzkidurak.....		10.912	2.983
Epe laburreko finantza inbertsioak.....		-	226	Kreditu erakundeekiko zorrak	A5	8.516	8.874
Eskud. & bst. aktibo likido baliokid.		23.984	16.036	Zeharkakoak.....	A5	6.751	6.289
				Beste zor batzuk		370	255
				Epe laburreko emakidagatiko pasiboa...	A3	11.775	11.610
				Taldeko erakundeekin zorrak		63	187
				Hartzek. eta ordaint. bst knt b.		3.167	4.560
AKTIBOA, GUZTIRA		370.343	354.468	ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA		370.343	354.468

B. 2020ko eta 2019ko ekitaldietako ondarearen emaitza ekonomikoaren kontu bateratua				Euroak milakotan		
	Eranskina	2020	2019			
Ibilgetu ez finantzariako dirulaguntzak egoztea		61	46			
Zerbitzu-emakida	A6	34.138	32.954			
Bestelako sarrerak	A6	3.180	-			
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.	A7	6.000	6.000			
Kudeaketa arrunteko sarrerak guztira		43.379	39.000			
Pertsonaleko gastuak	A8	(865)	(831)			
Hornidurak.....	A6	(19.725)	(16.636)			
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk.....	A6	(1.006)	(1.383)			
Ibilgetua amortizatzea	A3	(2.868)	(1.658)			
Beste emaitza batzuk		(229)	(31)			
Kudeaketa arrunteko gastuak guztira		(24.693)	(20.539)			
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA		18.686	18.461			
Gastu finantzarioak		(13.756)	(12.665)			
Finantza baliabideetan arazoizko balioaren bariazioa	A5	(1.708)	(5.662)			
EMAITZA FINANTZARIOA		(15.464)	(18.327)			
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA		3.222	134			



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ERANSKINAK

A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA ETA EZARGARRIA ZAION ARAUDIA

Kontsortzioaren Estatutuak, besteak beste, honako xedapen hauek besarkatzen dituzte:

- Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko erakunde publikoak Partzuergo izaera izango du eta bere xedeak betetzeko berezko lege-nortasuna eta jarduteko gaitasuna izango du, indarreko xedapenetan eta Estatutuetan ezarritakoari jarraikiz. Kontsortzioa Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikia dago.
- Kontsortzioa arautuko du Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak, garapeneko erkidegoko araubidean eta Estatutuetan agindutakoak.
- Kontsortzioak zerbitzuen prestazioen kudeaketa egiteko Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legeak tokiko zerbitzu publikoak kudeatzeko bereizten dituen moldeetakoren bat baliatuko du.
- Kontsortzioko langileak kontsortzian bildutako administrazioetako funtzionarioak edo lan kontratupeko langileak izango dira, ezargarria den araudiak aurreikusten dituen salbuespenak aintzat hartuta. Idazkari-lanetan kontsortzian bildutako erakundeetako funtzionario bat ariko da. Kontu-hartzaile lanetarako, Kontsortzioa zein administrazio publikotakoa den, une horretan administrazio horretako Kontu-hartzailetza atalaren zerbitzura diharduen langilea hautatuko da. Kontsortzioko ekonomia eta finantza kudeaketaren barne kontrola egiteko aribidea legokioke.
- Kontsortzioa atxikipenezko administrazio publikoaren ondare-arauek arautuko dute.
- Aurrekontua urtero onartuko du Batzar Nagusiak, atxikipenezko administrazio publikoaren arabera ezargarria zaion araudian finkatutako epe eta baldintzekin.
- Kontsortzioak bere kontuak kontabilizatu, egin eta aitortuko ditu atxikipenezko administrazio publikoaren arabera ezargarria zaion araudian aurreikusitako kontabilitate publikoko printzipio eta araei jarraikiz. Kasu guztietan, urteko kontuen auditoria bat egingo da eta kontsortzio zein administraziori atxiki zaion, administrazio horren kontrol-organoaren erantzukizun izango da auditoria egitea. Kontsortzioa aurrekontuen atal izango da eta atxikipenezko Administrazio publikoaren kontu orokorrean jaso beharko da, araudian aurreikusitako moduan.
- Kontsortzioak egiten dituen kontratuak Sektore Publikoko Kontratuen Legeak eta gai honetan gainerako indarreko arautegiak arautuko ditu.
- Estatutuetan aurreikusi gabeko egoera orotarako eta arauak interpretatzeko Toki Araubidearen Legediak xedatutakoa baliatuko da; baita, Kontsortzioak xede duen gaiarekin lotutako foru, autonomia, Estatu eta Europako arauak xedatutakoa ere.

Aipatu ditugun xedapenez gain, honako araudi ezargarri hau azpimarratzen dugu:

- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- 6/2007 Foru Araua, apirilaren 10ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren udalaz gaindiko erakundeak arautzen dituen.
- 51/2012 Foru Dekretua, abenduaren 28koa, GLHko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
- 6/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa, Gipuzkoako Hiri Hondakinak kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorra onesten duena.
- Sektore Publikoaren Kontabilitateari buruzko Nazioarteko 32. Araua, zerbitzuak emateko akordioak.

Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa sozietate anonimo bat da, Kontsortzioak soilik partaidetzen duena eta zuzenbide pribatuak arautua. Aplikagarri zaió 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, 2010eko uztailaren 2koa, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duena.

Ondasun eta zerbitzuen eta inbertsioen kontratazioaren esparruan, GHK botere esleitzaille da, SPKLren 3.3 artikuluari jarraikiz. Kontratuak pribatuak dira, SPKLren 26. artikuluan xedatutakoaren arabera. Erregulazio harmonizatuko kontratuen prestaketa eta esleipena SPKLren 317. artikulua arautuko du, eta erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratuen esleipena SPKLren 318. artikulua. Bestalde, langileen kontratazioari dagokionez, ezargarria den arautegian garatzen diren Konstituzioko arbitrariotasunaren debeku, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioetara meneratua dago; honako hau da ezargarria zaion arautegia: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa; eta 5/2015 Errege Lege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.2 AURREKONTUA ETA URTEKO KONTUAK

Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioaren 2019ko abenduaren 16ko Batzar Nagusiak erabaki du hasiera batean Kontsurtzioa eta GHK entitateen 2020ko Aurrekontu Orokorra onartzea, GFakoan barne hartzeko. 2019ko abenduaren 31n GAOn argitaratu da. Hona hemen onartutako aurrekontuen xehakapena:

	Euroak milakotan			
	Kontsurtzioa	GHK	Doiketak	Ktu. bateratua
Tasak eta bestelako sarrerak.....	36.791	16.732	(14.332)	39.191
Transferentziak eta dirulag. korronteak.....	6.000	-	-	6.000
Aktibo finantzarioak.....	664	1.630	-	2.294
SARREREN AURREKONTUA, GUZTIRA	43.455	18.362	(14.332)	47.485
Pertsonaleko gastuak	-	872	-	872
Gastu korronteak ondasun eta zerbitzuetan.....	36.039	6.770	(6.916)	35.893
Gastu finantzarioak.....	-	8.380	-	8.380
Transferentziak eta dirulag. korronteak	7.416	-	(7.416)	-
Inbertsio errealak	-	1.500	-	1.500
Pasibo finantzarioak.....	-	840	-	840
GASTUEN AURREKONTUA, GUZTIRA	43.455	18.362	(14.332)	47.485

Kontu Orokorrean sartutako Kontsurtzioaren aurrekontuko likidazioak diru-sarreraren 45,2 milioi euroren eta gastuen 44,2 milioi euroren hasierako aurrekontua du.

- Gastuei dagokienez, honako alde hauek ikusi dira:
 - Aurrekontu-likidazioaren hasierako kredituetan, GHKri egindako enkarguen aldaketak sartzen dira, 2020ko abenduan onartutakoak, eta, horien ondorioz, ondasun korronteak eta zerbitzuak kontratatzeko kapitulua 343.158 euro handitu da, eta transferentzia korronteengatik gastuen kapitulua gutxitu da, zenbateko berean.
 - Batzar Nagusian gastu-kapituluka onartutako aurrekontua ez dator bat Batzar berean onartutako aurrekontuko aplikazioen kontsignazioen batuketarekin; izan ere, aplikazio horiek 89.956 euro handiagoak dira ondasun eta zerbitzuetako gastu korronteen kapituluan, eta 700.000 euro handiagoak transferentzia korronteen gastuetan.
- Diru-sarrerei dagokienez, aurrekontu-likidazioan kontuan hartutakoek eta tasetan eta bestelako sarreretan onartutakoek 2,4 milioi euroren aldea dute, likidazioan akatsak daudelako.

Kontsurtzioaren 2021eko ekainaren 24ko Batzar Nagusiak onartu zituen Kontsurtzioaren beraren Kontu Orokorra eta Kontsurtzioaren eta GHKren kontu bateratua eta, Kontsurtzioaren Batzar Orokor den aldetik, GHKren Administrazio Kontseiluak 2021eko martxoaren 29an egindako urteko kontuak eta kudeaketa-txostena ere onartu zituen.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.3 IBILGETUA ETA EMAKIDAGATIKO PASIBOA

2020ko ekitaldian ibilgetuaren eta emakidagatiko pasiboaren bilakaera honako hau da:

	Euroak milakotan			
	Kontularitzako garbia		Zuzkidura	Kontab. garbia
	19.12.31	Altak	Amortiz.	20.12.31
Beste ibilgetu material bat.....	4.064	-	(139)	3.925
Obren emakidako aktiboa.....	259.026	9.784	(1.332)	267.478
Kontsortzioa GUZTIRA	263.090	9.784	(1.471)	271.403
Lursail, eraik. eta inst. teknikoaren gaineko eskubideak.....	63.635	451	(2.784)	61.302
GHK GUZTIRA	63.635	451	(2.784)	61.302
Kontsolidazio doiketak (*).....	3.045	-	1.387	4.432
IBILGETU BATERATUA	329.770	10.235	(2.868)	337.137

(*) Kontu Bateratuen memoriak bateratzearen ondoriozko doiketaren berri ematen du, taldeko erakundeen arteko amortizazioa kendu izanaren ondorioz.

	Euroak milakotan				
	Saldoa		Interesak	Ordaink.	Saldoa
	19.12.31	Altak		(Ikus A.6)	20.12.31
GIG1 Zerbitzu-emakida.....	230.593	9.784	4.670	(7.964)	237.083
GIG2 Zerbitzu-emakida.....	30.173	-	264	(1.436)	29.001
KONTSORTZIOAREN EMAKID. PASIBOA GUZTIRA	260.766	9.784	4.934	(9.400)	266.084

Kontsortzioa

Obra emateko aktiboak arrazoizko balioaren arabera baloratu dira hasieran, Sektore Publikoko 32. Nazioarteko Kontabilitate Arauaren arabera. Balio hori enpresa emakidadunek GIG1 eta GIG2 lizitazio-prozesuetan egin dituzten aktiboak eraikitzeke kostuen zenbatespenaren bidez eskuratu da. 2020ko abenduaren 31n, GIG1i eta GIG2ri lotutako aktiboak operatibo daude, eta kostua, hurrenez hurren, 238,6 milioi euro eta 30,4 milioi euro da. Ibilgetuak bi GIGen amortizazio-kostu garbia jasotzen du, 267,5 milioi euro.

Obren emakidako aktiboen kontrapartida modura, emakidako pasiboak aitortzen dira, eta hasiera batean aktiboaren zenbatekoarekin bat datoz. Gerora, kostu amortizatuarekin balioesten dira, GIG1 eta GIG2 proiektuen errendimenduaren barne-tasa (EBT) abiaburu hartuta. 2020ko ekitaldian, Kontsortzioak pasibo finantzarioaren eguneratzeagatik 4,9 milioi euroren finantza-gastua aitortu du Ondare Ekonomikoaren Emaitzaren kontuan; gainera, ekitaldian egindako ordainketetan egotz daitekeen zatiagatik pasiboa txikitu da. 266,1 milioi euroren emakidagatiko pasiboa epe luzeko eta epe laburreko pasibo gisa sailkatzen da, 254,3 milioi euroren eta 11,8 milioi euroren zenbatekoekin, hurrenez hurren.

GHK

GHKren Ibilgetu ukiezinaren ondasunak, 2020ko abenduaren 31n 61,3 milioi euroren saldoa dutenak, jabari publikoko ondasunak dira, Kontsortzioaren jabetzakoak direlako eta zerbitzu

publiko bat eskaintzeari atxikita daudelako. Ondasunen erabilera pribatibo eskusiboa atxikipen erregimenaren pean egiten da, ordain ekonomikorik batere ordaindu gabe. Kudeaketa mandatuaren indarraldia amaitu delarik, GHK-k Kontsortzioari ondasunak dauden egoeran itzuliko dizkio.

Kontsortzioaren eta GHKren artean izenpetutako Esparru Akordioak agintzen du GIG1aren eta GIG2aren emakida kontratuak izenpetu ondoren, GHK-k konpromisoa hartzen duela sozietate emakidadunen esku jartzeko obra egikaritzeko beharrezko diren bere jabetzako lursailen eta instalazioen erabilera-eskubidea. Lagapen hori 2017ko maiatzaren 9an eta 2018ko urriaren 16an egin zen, guztira 54,9 milioi euroren balorazioarekin (2017an 46,5 milioi euro eta 2018an 8,4 milioi euro laga ziren). GHK-k ibilgetuan gorde ditu emakidadunari lagatako aktiboak, izan ere ebaluatu du Kontsortzioari egin beharreko fakturazioak barne hartu beharko duela emakidadunari lagatako aktiboak eta ukiezinak linealki berreskuratzeko zatia. Kontratuak amaitzean, GHKren aktiboak egoera operatiboan itzuliko dira, ohiko errendimenduak dituztela eta erabiltzeko egoera onean daudela.

A.4 IBILGETU FINANTZARIOA ETA ONDARE GARBIAREN KONTUAK

Ondare Garbiaren eta ibilgetu finantzarioaren kontuen egoera 2020ko abenduaren 31n honako hau da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan				
	Ekarrirako ondarea	Erak. jabeen bst. ekarpen b.	Erreserbak	Kapitala	Ibilgetu finantzarioa
Kontsortzioa	3.350	54.462	-	-	53.641
GHK	-	-	72.307	1.000	-
Bateratze-doiketak.....	-	-	(52.641)	(1.000)	(53.641)
KONTU BATERATUAK	3.350	54.462	19.666	-	-

Hona hemen Kontsortzioaren jabe diren erakundeen Ondare-kontuen eta Bestelako ekarpenen jatorria, eta horien kontrapartida Kontsortzioaren ibilgetu finantzarioan eta GHKren Erreserbetan:

	Euroak milakotan			
	Ekarrirako ondarea	Erak. jabeen bst. ekarpen b.	Ibilgetu finantzarioa	GHK Erreserbak
GHK eratzeko ekarpenak	1.000	-	1.000	-
GHKren Erreserben saldoa 2015eko abenduan	-	-	-	19.285
GFAREN ekarpenak GHHKPO 2002-2016				
Dirulaguntzen kapitalizazioa 2015eko abenduaren 31n	2.350	36.197	38.547	38.547
2016-2018 dirulaguntzak	-	18.265	18.265	18.265
GHKren part. minorazioa, Kontsor. kontura egindako inberts.	-	-	(4.415)	(4.415)
Beste kontu-ohar txiki batzuk.....	-	-	244	625
Saldoa 2020ko abenduaren 31n	3.350	54.462	53.641	72.307



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

